

Asisko gutuna

2019ko maiatza.

3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

127. zenbakia

Zenbat kostatzen zaigun ekonomia eta espiritualtasuna uztartzea. Badirudi espiritualtasunaz hitz egiteak mundu honetako gauzekin zerikusirik ez duela. Prest geundeke Jainkoari bere eskua gure poltsikoan sartzen uztera?

Gogoetarako gaia

Nire diruak

Bat baino gehiago harrituko da gure diruez hitz egin behar izateaz, hau bezalako frantziskotar espiritualitatearen arlo batean. Geure ondasun materialekin egiten dugun hori barrutik bizi dugunaren, eta bizitzan bultzatzen gaituzten motibazioen, ispilu ona da. Horregatik, nire ekonomiari eta funtzionatzeko dudan moduari begiratzuz, argiago ikusiko dut zer bizi dudan eta zerk biziartzten nauen.

Oinarrizko hiru alor daude, nire diruari dagokionez, nire besteekiko solidaritatea ikusten laguntzeko. Lehenengoa da nondik datozen nire ondasunak. Batzuk hartuak dira (nire gurasoengandik, laguntzetatik, etab.); beste batzuk lanetik datoz (soldata, zuzeneko lana...); eta beste batzuk beste ondasun batzuen etekinak (errentak, alokairuak...). Horien guztien jatorriak eta kudeaketak pistak ematen dizkidate nire solidaritateari buruz. Bigarren alorra nire ondasunei ematen diedan erabileraz doa: zer premia estaltzen ditut, nola gastatzen, zeintzuk dira nire kapritxoak, arrazionalki kudeatzen ditut ala nolahi xahutzen... Guzti horrek ere islatzen

nau. Eta hirugarren alorrek esaten du zenbat, nola, norekin... partekatzen ditudan neure ondasunak. Solidaritatea hirugarren alorrera murrizteko joera izan ohi dugu, baina lehenengo biak ere inplikaturik daude bertan.

Nire ondasunen jatorria eta erabilera aztertu eta deskribatzeak lagunduko lidake, mugitzen nauen borondate onak baino gehiago, nire solidaritatearen kalitatea eta sakontasuna ikusten. Eta nire ondasunak ez dira bakarrik materialak, zeren eta jabetzan baititut neure denbora, neure gaitasunak, trebetasunak, etab. Baina ondasun materialek, dirutik hasita, halako sedukzio-ahalmena dute, non gu izan beharrean haien jabe, beraiek bihurtzen diren gure menderatzaile, ez bagara adi bizi haien indar seduzitzailearen aurrean.

Solidaritateak kontzientzia argia eskatzen du gugan, horrela jakin eta erabaki ahal izateko ondasun horiek baino lehenago pertsonak daudela, geugandik hasita. Eta gainera bihotz irekia eskatzen du besteengana eta beraien premietara. Zeren, zuen aberastasuna non, zuen bihotza han.

Ebanjelioko pasartea: Lk 16, 9-14

«Beraz, hauxe diotsuet nik ere: Irabaz itzazue adiskideak bidegabeko diruaren bidez; horrela, dirua amaitzean, betiko bizilekuetan hartuko zaituzte Jainkoak. Gauza txikietan fidagarria, handietan ere fidagarri da. Bidegabeko dirua erabiltzen fidatzekoak izan ez bazarete, nork utzi zuen esku egiazko ondasuna? Zeuena ez duzuen aberastasunarekin fidatzekoak izan ez bazarete, nork eman benetan dagokizuen? Ez da morroirik bi nagusi zerbitza ditzakeenik; izan ere, bata gorroto izango du eta bestea maite, edota batari men egingo dio eta bestea begitan hartuko. Ezin zaitezketen Jainkoaren eta diruaren morroi izan». Entzun zuten hau guztia fariseu diruzaleek, eta barre egiten zioten Jesusi.

Frantziskotar espiritualtasuna

Santuaren bikario zen Pedro Cattani anaiak, ikusiz kanpoko anaia mordoia zetorrela Portziunkulako Andre Mariara eta limosnak ez zirela aski premiei aurre egiteko, Frantzisko santuari esan zion: «Anaia, ez dakit zer egin, ez baitut aski edonondik multzoka datozen anaien premiak asetzeko. Utz iezadazu, arren, Ordenan sartzen diren nobizioen ondasunetatik zerbait gordetzen, behar denean erreserba horretatik hartzeko». Santuak erantzun zion: «Anaia maite-maitea, utikan gugandik gupida hori, gizakiari mesede egiteagatik, Erregelaren kontra jokatuko baikenuke». Eta bikarioak: «Zer egingo dut, orduan?» Frantziskok erantzun: «Ezin badiezu bestela premiei erantzun, hartu Ama Birjinaren aldareko apaingarriak. Sinets iezadazu: atseginago izango litzaioke Ama Birjinari bere Semearen Ebanjelioa gordetzearren aldarea biluzik ikustea, aldarea jantzita eta Semea mesprextatua ikustea baino. Bidaliko du Jaunak, guri Amak maileguz utzia berriro hari itzuliko dionik».

Otoitza

Bizi gaitezela, Jauna, eskuz elkartuak
otoitzean eta emanean.
Zure Eskuei elkartuak Aitaren eskuetan,
Espirituaren hegal emankorrei elkartuak,
pobreen eskuei elkartuak.
Ebanjeliokoak diren eskuak,
Bizi ereileak,
Itxaropen kriseiluak,
Bake hegadak.
Zure Esku solidarioei elkartuak,
guztien Ogia zatituz.
Zure Esku munduko gurutzetan
zulatuei elkartuak.

Zure esku Pazkoan loriatuei elkartuak.
Esku irekiak, mugarik gabeak,
eskurik dagoen edoneraino.
Gai direnak Mundu osoa besarkatzeko,
Erreinuari leialak izanez
Hirugarren Munduari leialak.
Justiziaren alde su eta gar luzatuak,
maitasunean goxoak.
Hartzen dutena dohakotasun biderkatuan
ematen duten eskuak,
beti esku gehiago,
beti elkartuagoak.

Pedro Casaldáliga

Gutuneko azken hitzak

“Ez eman diruari duena baino balio gehiagorik, morroi ona baita baina nagusi eskasa”.
(A. Dumas)

2019ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 3, 16-21	8 Jn 6, 35-40	15 Jn 12, 44-50	22 Jn 15, 1-8	29 Jn 16,12-15
2 Jn 3, 31-36	9 Jn 6,44-51	16 Jn 13, 16-20	23 Jn 15, 9-11	30 Jn 16,16-20
3 Jn 14,6-14	10 Jn 6,52-59	17 Jn 14, 1-6	24 Jn 15, 12-17	31 Lk 1, 39-56
4 Jn 6, 16-21	11 Jn 6, 60-69	18 Jn 14,7-14	25 Jn 15, 18-21	
5 Jn 21,1-14	12 Jn 10, 27-30	19 Jn 13,31-35	26 Jn 14, 23-29	
6 Jn 6, 22-29	13 Jn 10,1-10	20 Jn 14, 21-26	27 Jn 15, 26-16, 4a	
7 Jn 6, 30-35	14 Jn 15,9-17	21 Jn 14, 27-31a	28 Jn 16, 5-11	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Maiatzeko otoitza
30ean izango da